

**BERTSOEN TXOKOA**

**SANTUTXUKO KOPLAK<sup>1</sup>**

Itxoñotik Saratzura  
nere oinak hara gura.  
Itxoñoko sardua baino  
hobeago dek hango ura.

Arrateko gurpila zuri  
idi handien merketari.  
Azeri narrue duket bi  
zentzune kokotez atzefi.

Eizarreko landetan  
eperra dabil kantetan.  
hangoxe mutil ederrenari  
kaka dario praketan.

Lausirikeko dukie  
duke errenta gabie.  
Aretxen ondorik ei dabilela  
Belausteiko damie.

---

<sup>1</sup> Santutxu auzoa Markina-Xemeinen dago, *Aingeru Guardako* baselizaren inguruan, mendi-mendian. Lau kopla hauek 1980ko hamarkadan Milloiko Iñigo Manzisidor mutikoak ekarri zizkidan bere eskuz papertxo batean idatzirik. Goian hau jartzen du: *Nire birramonak kantatzen zituen bertsoak.*

**BIRIATUN GOTZON GARATE  
ETA  
MIXEL LEKUONAREN OMENEZ**

*Garate eta Lekuona jaunak,  
maisur handiak, lagunak lagunak.*

Euskaltzale handi bi  
oroitzera hona,  
Gotzon Garate eta  
Mixel Lekuona.

Jakinduri zabala  
bizitza sakona,  
hutsune nabaria  
euskaldunok soma.

Gaurko gure xedeak  
*omena* oinarri,  
bakoitzaren dohainak  
agerian jarri.

Ekarpen ugariak  
egin Herriari,  
apalak ziren zinez  
eta maitagarri.

Erljio, kultura  
gizarteko argi,  
ekintzaile apartak  
lan onak ugari.

Bizitzako gaietan  
Herri-aitzindari,  
euskara maite zuten  
gure argizagi.

Euskara aberasteko  
baserriz baserri,  
etxe hauetakoei  
esker eta aldarri.

Makeako atek  
zabal parez pare,  
harrera bikainena  
ardo ta gaztae.

Biriatuko semea  
Makeako ikur  
"Onetik"en sortzaile  
apaiz on ta samur.

Garate eta Lekuona jaunak,  
maisuri handiak, lagunak lagunak.

*Pilare Baraiazarra*

“BETI-JAI” JUBILATUEN ELKARTEKO  
OMENALDI-MEZAN

Garai batean indartsu ginen,  
gaur nahiko apaldu gara,  
bazirudian mundua jango  
genduala eta hara:  
urteen zama gainean eta  
onenak emonak jada;  
halan be Jaunak isuriko dau  
grazia bihotzetara,  
bide hau pozik egin dagigun  
goian jarriz begirada.

Lehenago gorantz etorri ginen,  
orain pixka bat gainbehera;  
hau da bizitzak daukan legea,  
haren betiko joera;  
gure ondoan agertzen zara,  
Jauna, Zu beti onbera,  
zure laguntzaz ez da izango  
hain gogorra ibilera,  
hau amaitzean zure etxean  
dogu betiko bilera.

Lerro txikitan bilduko dogu  
egun honen dosierra,  
baina denbora iheska doa,  
hain dau ibili lasterra!  
Martxa honetan jo behar dogu  
amaierako bazterra...  
Halan be hemen emon nahi dogu

oraindik nahikoa gerra:  
urteetako jakituriaz  
hor daukagu lan ederra.

Miresten dogu bene-benetan  
zuen guztion ekintza,  
horregaitik gaur bertso gozotan  
zuok omentzen gabilta;  
sentimendua kantu bihurtuz,  
airean hegaz da hitza.  
Nik gogoratu nahi neuke zuen  
urteetako emaitza,  
eta Jaunari agertu hemen  
esker oneko otoitza.

#### AMONATXO BATI URTEBETETZEAN

Maiatzak agur egin baino lehen,  
horra opari, lore bat;  
aurretik ere bizitzan zehar  
hartu dituzu zuk hainbat.  
Urteak dira? Loreak dira?  
Usain ona dute behintzat;  
bana-banaka zure koroia  
osotzen dela deritzat;  
nik ere bertsoz zoriontzeko  
lore hau daukat zuretzat.

## JOAN ZIRENAK GOGOAN

### 1. A. Jazinto Agirre zenari

Nekez biltzen da lerro urritan  
bizi guztiko itzala:  
Amerikaren keinua jaso  
zenuen gazte zinala,  
Mendiolarantz ematen duen  
eguzki-printza bezala;  
harantz joanda bertan aurkitu  
zeure misio zabala;  
gero hemendik Aitarengana  
bizia agortu ahala;  
agur, Jazinto, Jaunak beraren  
etxean jaso zaitzala.

### 2. Ainhoa Iregi Uriarte zenari (14. urteurrena)

Enarak iaz agur esanda  
berriz dira itzuliko,  
joan-etorri ibiltzen dira  
izakiak zikloz ziklo;  
dirudienez ez dira inoiz  
galduko ez itzaliko;  
esperientziak, berriz, diosku  
dena dela behin-behineko:  
bizia hemen sortu-itzali...  
Maitasuna da betiko.

Egunak bere agur-keinuan  
intziri zeru-ertzetik,  
tristura-aire leun bat utzirik  
bere urratsen atzetik;  
halaxe joan zinen zu ere  
gu bizion ametsetik,  
amaitutzat jo zenuen zeure  
ibilalditxo motzetik;  
bistatik joan zinen, Ainhoa,  
ez, ordea, bihotzetik.

*Luis Baraiazarra*